



Josemari Agirretxe

Porrotx pailaZoa

«Ikuskizun berria urtebetetze festa handi bat da»

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak oso lanpetuak ibili dira azkenaldian. Taldearen 15. urtebetetze eguna ospatzeko, CD bat kaleratu dute. Horrez gain, Hik Hasi taldearekin batera, *Jolasen Altxorra* bideoa prestatu dute.

Zer bildu duzue 15. urtebetetzea ospatzeko argitaratutako CDan?

15 urte hauetan lagun ugari egin ditugu: Kintxo Barrilete, Toribito errege maltzurra, Karra-patata pirata, amona Joxefina, Josepa behia, Beltzi txakurra.

Bittori Gaurtxori... Orain

arte, 10 disko argitaratu ditugu. 15 urte horiek ospatzeko, ikuskizun bat prestatu dugu lagun horietako batzuekin.

Diskoan bildutako abestiak berriak al dira?

Aurten abesti berriak sortu beharrean, ibilbide honetan abestu ditugun kantu politenak aukeratu ditugu, eta bilduma hau osatu dugu. Ikuskizun berria urtebetetze festa handi bat da, haurrekin eta egindako lagunekin ospatuko dugun festa.

Nor gonbidatu duzue zuen jai handira?

Guztira, 11 pertsonaia agertuko dira. Haurrak, gurasoak eta gerturatu nahi duten guztiak gonbidatzeaz gain, amona Josefina

eta bere animaliak, Maritxu izeba pastelzalea, Patatari sukaldaria, Saturnino, Jazinto Busti Blai txirrindularia, Kintxo Barrilete...

Zein abenturatan murgildu zarete *Jolasen Altxorra* bideoan?


Amona Josefinak piratei buruzko istorioa kontatzen digu oheratu aurretik. Hala, piratekin egiten dugu amets. Pirritx eta biok haurrekin altxorraren bila abiatzen gara. Altxorraren uhartera iristen gara, baina Barrabas pirata maltzurraren hamaika oztopo gainditu beharko ditugu. Eskerrak pertsonaia ezagun askoren laguntza izango dugun!

Zein dira pertsonaia ezagun horiek?

Pirritx eta biokin batera, Zumeta margolaria, Juan Gorriti eskultorea, Edurne Pasaban eta Alberto Iñurrategi mendizaleak, Didier Mundutegi, Olatz Zugasti, Gozategi taldea, Arzak sukaldaria... agertzen dira bideoan.

Zein xede du bideoak?

Hik Hasik jolasak euskaraz egiteko kezka bat zuen. Jolasen eta abestien aldetik haurren artean gabezia bat zegoela iruditzen zitzaion. Hik Hasik jolasen bilduma bat egitea hartu zuen helburutzat. Hala, 3 CD eta bi bideo atera dituzte orain arte: *Zatoz jolastera* duela bi urte, eta, orain, *Jolasen altxorra*. Ongi pasatzeaz gain, euskal jolasak bultzatzea eta euskaraz jolastea da bideoaren helburu nagusia.



Bideoa

Izenburua: Jolasen Altxorra.

Argitaratzailea: Hik Hasi.

Kanta kopurua: 20 jolas eta abesti.

Iraupena: 60 minutu.

Argitaletxea: Xangorin.



Diskoa


Izenburua: 15 urte beti zuekin... katxiporreta!!

Taldea: Takolo, Pirritx eta Porrotx.

Kanta kopurua: 18 kanta.

Argitaletxea: Matxinsalto.

LIBURUA



'Josu eta Kokoa'

Josu oso jatun txarra da. Horregatik, izeba Matildek jaten ez badu Kokoa etorri eta berarekin eramango duela esaten dio. Josuk ez du Ko-koagan sinesten,


baina, hala ere, eskutitz bat idatziko dio.

Geertje Gort

Argitaletxea ■ Ibaizabal

DISKOA

'Blues sustraia'



Blues oinarria alde batera utzi gabe, rock doinuak nahastu ditu talde elgoibartarrak azken lanean. 10 kantaz osaturiko diskoa da. Lasaia da, baina, aldi berean, indartsua. Maitaleentzako kantak biltzen dituen lana.

Arima Beltzak

Argitaletxea ■ Gaztelupeko Hotsak.

ALDIZKARIA

'Txorrotxio'



Hilabetekariaren lehen alean Patxi Santamaria Zarauzko ikastetxeko antzerki irakaslearekin aritu dira solasean. Beirarekin zer egin daitekeen ere irakur daiteke. Eta askoz gehiago:

denbora-pasak, txisteak, errezetak...

Argitaletxea ■ Txaparro Kultur Elkarte